

# BERRIGARA

74. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, irailak 4

**KONTSUMOA  
GAIARI  
BURUZKO  
MASTERRA  
UNEDEN**

**MARISA  
PUERTAS  
EXPOARI  
BURUZ  
BERBETAN**

**KIROLAK**

**BERGARA HIRIA  
FUTBOL  
TXAPELKETA  
ASTEBUKAERAN  
JOKOAN**



**Kofraixak:  
Osintxuk bere  
jaiak ospatu  
ditu**



**Erropa  
Motxilak  
Oinetakoak**

**BERRIRO IKASTOLARA!**



**IPAR  
CENTER**

**Bergarako San Lorenzon  
HAU ETA GEHIAGO!!**

**ETA ZURE ETXEA JAZTEKO**

*sukalde eta  
bainuko  
altzariak*

*parketak*

*gazteentzako  
altzariak*





# BERTSO JAIALDIA

## Finaleko zortzirak

- Angel Mari Peñagarikano
  - Andoni Egaña
  - Jon Sarasua
    - Olaso
    - Euskitze
- Mikel Mendizabal
- Sebastian Lizaso
  - Iñaki Murua
- Gaijartzailea
  - Lazaro Azkune

### LEKUA:

*Mariaren Lagundia*

### ORDUA:

*Gaueko 10.30etan*

### EGUNA:

*Irailak 11, ostirala*

### ANTOLATZAILEA:

**JARDUN ELKARTEA**

## LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLAK eskeintzen du:

- EEI (REM) 1. zikloa:

Erderaz

Elebiduna

Euskaraz

- Batxilergoak:

Tekniko Industriala (BTI) euskaraz

Administrarritza eta gestioa (BAG) euskaraz

- Lanbide Heziketa 2. zikloa:

Mekanika (euskaraz eta erdaraz)

Elektrizitatea/Elektronika (erdaraz)

Administrarritza

### OHARRA

**MATRIKULATZEKO EGUNAK:** irailak 7tik 11ra  
**ORDUAK:** Goizeko 9.30etatik 12.30etara



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jauriaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal, Edurne Arenaza eta Miren Josu Arrazola  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaian

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikee, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereziar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereziar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I. Sorondo.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### BERGARAKO IGERILARIAK

Bergara Igeri Elkarte-ko Unai Alberdik 100 metro bizkarreran, Juan de Borjak 100 metro tximeletan eta Gorka Gonzálezek 100 brazan, urrezko domina bana lortu dute Albaceten jokatu dute berri diren Gaste mailako Espainiako Igeri Txapelketan. Azken honen gainera, txapelketako errekor berria lortu du. Taldekako sailkapenen orokorrean, bestalde, zazpigarren geratu dira bergararrak, Estatu osoko 260 igerilariren (95 talde-tan banatuta) artean.

Horiez gain, Aritz Garzia zazpigarren sailkatu da 100 metro libree-



tan eta Ion Jauregik lau-garren postua eskuratu du 400 metro estiloetan.

Taldeka, seigarren geratu dira bergararrak 4 x 400 metro libreetan eta bosgarren 4 x 400 metro estiloetan.

### Urrezko dominak Espainiako Txapelketan

## ITURRI ONETIK

### Remigio Mujika zenari egingo zaio omenaldia Samartinetan

Iruñeko Orfeoiaren sortzaile eta lehen zuzendaria izan zen Remigio Mujika bergararrari omenaldia egingo zaio, Iruñeko orfeoiaren mendeurrena ospatzeko. Hilaren 13an, goizeko, 11etan Iruñeko Udal agintariei harrera egingo die Bergarako Udalak. Remigio Mujikaren omenezko plaka bat emango dio Iruñeko udalak Bergarakoari eta ondoren, San Pedroko parrokian Meza Nagusia izango da Iruñeko Orfeoiak kantatuko duelarik.

## ESAN DUTE

"Ez dut txahala hiltzen ikusi nahi izan. Ahal izan dugun ondoen zaindu dugu; garagarra, artoa, baba eta esnez eman diogu, esne asko. Atzo bertan ere amaren errapetik edaten ziharduen."

**CLARA DOLARA**  
Osintxuko  
Makoleta baserriko  
etxeoandrea  
EL DIARIO VASCO

"Profesionaletan debutatu berri duen Oregi bergararrak afizionatuetan baino gehiago jokutzen duela entzuten da zaletuen artean".

**JOSEBA LEZETA**  
Kazetaria  
EL DIARIO VASCO

"Partidu txarra egin dugu, baina horrek ez dio meriturik kendu behar Unanue eta Belokiren garaipenari".

**J. M. ZEZEAGA**  
Pelotaria  
EGUNKARIA

## LONBIDE OINETAKOAK



**BIDEKURUTZETA 7,**

**Tfnoa: 76 10 57**

**BERGARA**

## ELEKTRO

**ARENAZA C.B.**

**Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.**

San Lorentzo 19,

Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



### "Atrakzio parke bati buruz"

Azkenik badirudi Unzeta Ruiz de la Prada parkea egiten laister hasiko direla. Gogoratu beharra dago aurreko urtearen bukaeran proiektua onartu zela. Ondo aztertu eta aurkako zenbait iritzi kontutan hartu ondoren proiektu hau gelditu eta aldaketa batzuk egitea erabaki zen.

Uztaileko azkeneko Udal plenoan onartu zen parke honetako behin betiko proiektua.

Eta orain zer? Egia esan ez dugu erabateko proiektuaren berri gehiegi. Jakin badakigu aldaketa gutxi egin direla, eta beti hasierako proiektuaren arabera. Ertzaintzak bertan jarraituko du, honez gain hauer jako aparkaleku bat egiteko zuhaitz ugari botako dira. Aurrekontuak gora egin du (lehen 100 milioi baino gehiago ziren aurrekontu-koak).

Uste dugu gauzak ez direla ondo egiten, eta kasu konkretu honetan salatu beharra daukagu Hirigintza eta Ingurugiro Batzordearen portaera.

Proiektua azaltzeko eta kontrastatzeko deituko zigutela esan ziguten; oraindik zai gaude. Batzorde honen buruek ez dute beraien hitza bete. Proposamenak egitea posible izango genuela esan ziguten. Egin genituen, baina noski bidean gelditu ziren.

Eguzkiko kideentzat hasierako

proiektuak barneko akatsak zituen, eta sakonki birplanteatu ez denez, esan dezakegu egon diren aldaketa txikiak "partxeo" bat besterik ez direla.

Benetan garrantzitsuena proiektuaren ezaugarri orokorrak dira; eta hauek ez dira ezer aldatu. Penagarria da zer-bait "eraikitzeko" gutzia hondatu behar izatea.

### Eguzki

### BERRIGARAKO publizista eta erredaktore berria



Miren Josu Arrazola zumarragarra dugu Berrigarako publizista eta erredaktore berria. 24 urte ditu eta Informazio Zientzietan lizentziatua da.

## ARGAZKI eta POSTALEN II. Lehiaketa

Oporretan atera dituzun argazki barregarri eta kurioso horiek zure lagunei eta familiarterkoei erakutsi dizkiezula eta oporretan gertatu zaizkizun batallitak tabernatara bidalitako postaletan kontatzen dituzula enteratu gara... Baina Berrigarara ez dituzu oraindik bidali..., nola demontres, lotsarik ez daukazu!! Ea ba, oraindik garaiz zaude; hartu itzazu postal eta argazki zoragarri horiek eta bidalizkiguzu asteartea (hilak 8) baino lehen Errotalde Jauregian daukagun erredakziora. KIÑUK oparitutako argazki makina bikaina edota TXURINGO Jatetxeak emandako bi pertsonarentzako afari ederra zureak izan daitezke.

### Tiira ba!





## ZINEA



### BATMAN VUELVE

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30  
eta 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30 eta  
22.15.

Astlehena: 19.30.

▼▼ Zinea ere badator, oporretatik bueltan, eta hemen duzue *Batman* arrakastatsuaren bigarren zatia. Berriz ere Tim Burton zuzendari lanetan eta Michael Keaton komiki eroiaren paperean. Aurpegi berriak, ostera, Michelle Pfeiffer (Catwoman) eta Danny DeVito ditugu.

## JAIALDIAK

• **Rock kontzertua** Gaztetxean-larunbatean, gaueko 10.00etan, **Atrocidad** eta **Neopresion** taldeekin.

• **Bertso jaialdia:** Gipuzkoako Txapelketako finaleko zortzirak, ostiralean, **hilak 11**, gaueko 10.30etan Mariaren Lagundian. Gai jartzailea, **Lazaro Azkune**.

## HITZALDIAK

• **Erret Mintegian egindako ikerlanen inguruan** jardungo dute ostiralean, **irailak 11**, 19.30etan Kultur Etxean Jose Llobart eta Ines Pellónnek.

## FARMAZIAK

- **Larunbata 5:** Camacho.
- **Igandea 6:** Camacho.
- **Astlehena 7:** Estella.
- **Asteartea 8:** Mozos
- **Asteazkena 9:** Camacho.
- **Osteguna 10:** Mozos
- **Ostirala 11:** Camacho.

## OGIA

- **Igandea 6:** Bolintxo

## AUKERAN



▼▼ **Bergara Hiria Futbol Txapelketa** jokatuko dute astebukaera honetan Bergara K.E.k, Gasteizko Aurrierak, Aretxabaletak eta Aloñamendik. Leheengo biek ostiralean eta besteek larunbatean. Finala, berriz, igandean. Hiru partiduak Agorrosinen, arratsaldeko 6.30etan.

## OILAGORRA Taberna

Barrenkale 21, BERGARA



## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA



□ **Istripua**

Juan Luis Alcaraz Senaroma, 28 urtekoa, eta Ana Maria Mulillas Aljonilla senar-emazte bergararrak hil egin ziren asteazkenean, 9.45etan, Belate mendatean izandako kamioi istripuan. Juan Luis Alcarazek gidatzen zuen kamioia errepidetik irten eta 40 metroko amildegi batetik behera erori zen Almandozen. Juan Luisek eta Ana Mariak bi seme-alaba zituzten, Ana Maria (8 urte) eta Francisco (7).. Goian beude.

□ **Kirol bilera**

Udal Kirol Zerbitzuak dei egiten die Bergarako kirol talde guztiei datorren irailaren 14an, 7etan, Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko. Besteak beste, instalazioen banaketa, udal kirol eskolak, Bergara Kirol Sariak, Bizi Alternatiboa eta datorren urteko ihardueren programa aztertuko dira. Bestalde, eta kirolarekin jarraituz esan kanpoko igerilekuak irailaren 13an itxiko direla.



**Kartel lehiaketa**

Drogomenpekotasan Prebentziorako udal zerbitzuak kartel lehiaketa konbokatuko du urriaren amaieran edota azaroaren lehen egunetan ospatuko den Bizi Alternatiboaren VI. ediziorako. Lanak pintura edota fotografia teknikak erabiliaz egin daitezke eta, 40x60 zm.ko kartelek "VI. Bizi Alternatiboa 1.992" testua eraman beharko dute.

Epaimahaiak ihardunaldi hauen helburura

gehien hurbiltzen diren lanak gehiago baloratuko ditu, drogomenpekotasunaren alternatiba bezala aisialdia bultzatu nahi delarik. Irabazleak 50.000 pta. ko saria jasoko du eta interesatuek urriaren 2ra arte aurkez ditzakete beren ideiak Irizar Jauregian. Kartelaren atzekaldean lema bat idatzi beharko dute eta beste sibre batetan egilearen datuak eta kartelaren lema kanpoaldean.

*Urteroko formula*

Kirola, zinea, musika, mahai-inguruak, jolasak..., hori da hain zuzen Drogomenpekotasan Prebentziorako Batzordeak astialdiaren alternatiba bezala proposatzen duen formula. Helburua gazte jendea droga mundutik urruntzea litzateke eta hortarako hasi dira jadanik aurtengo edizioaren programa zehazteko bilerak, astebetean primeran pasa eta aurrerantzean ere gazteek formula horrekin jarraitzeko itzaropenaz.

□ **Bergara K.E. bazkide berrien bila**

Bergara K.E.k bazkide berriak egiteko kanpainari ekin dio. Gaur egun 550 inguru dira eta 1000 lortu nahi dira. Hortarako, elkarteko jokalarien gurasoengana zuzenduko da batez ere.

Bestalde, bazkide karneta egin edota berritzu nahi dutenek, elkarteko bulegoetatik pasa daitezke asteleheneetik ostiralera arratsaldeko 6.30etatik aurrera. 4.500 pezeta ordaindu beharko dute karnet arrunta egin nahi dutenek; Agorrosingo tribunan jarlekua izango dute, bestalde, 5.500 pezeta ordaintzen dutenek eta babesle karneta atera nahi dutenek, azkenik, 8.500 pezeta pagatu beharko dute. Esan dezagun, Astebukaera honetan jokatu den Bergara Hiria Txapelketako partiduetan, bulegoak egokituko direla futbol zelaian bertan, ordainketa eskuz egitea nahi dutenentzat.

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



**GAZTELV S.A.**  
**Burdinaki denda**

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



## UNEDek kontsumoari buruzko bi urteko masterra emango du

Bergarako UNEDek Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz martxan jarriko duen kontsumoari buruzko bi ikasturteko masterra aurkeztu zen asteazkenean. Master hau lizentziatu, diplomatu eta kontsumo arloko profesionalei zuzendua dago eta helburua kontsumo arloko profesionarien gaitasun teknikoa landu eta, era berean, espezialistak, ikertzaileak eta hezitzaileak prestatzea litzateke. Lehen aldia da honelako master bat Euskal Herrian antolatzen dela eta, aukeraketa egiteko orduan, kontsumo arloarekin zerikusi duten lizentziatuek izango dute lehentasuna, gehienez 40 ikasle izango baitira.

### Bost arlo

Esan bezala, Fernan-



do Etxeberriaren zuzendaritzapean, masterra bi ikasturte lektibotan egingo da eta 70 kreditu (700 ordu) eta 5 arlo izango ditu (juridikoa, soziala, ekonomikoa, produktu eta zerbitzu arloa eta praktika). Irakaslegoari dagokionez, 60 irakasle unibertsitarik eta kontsumoko teknikariek

osatuko dute eta titulua Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak eta Bergarako UNEDek emango dute. Masterraren prezioa 500.000 pta.koa izango da (250.000 ikasturte bakoitzeko) eta aurreinskripzio epea irailaren 20ra arte egongo da zabalik.

### Lehiaketa

Bergarako Udaletxea berrizteko datozen bi urteotan egin behar diren lanak adjudikatzeko deia egina dago. Lehiaketa parte hartzeko interesa duten enpresek irailaren 14ko ordubiak arte izango dute zabalik proposamen ezberdinak aurkezteko epea. Baldintzak Arrasateko Kopi-Prset fotokopia dendan jaso daitezke.

### Beka

Udaleko Kultur Zerbitzuak jakitera eman du jadanik zabalik dagoela Justo Garate Arriola bekaren eskaera epea. Interesatuak, irail guztian zehar, goizez, aurkez ditzakete beren eskakizunak udal bulegoetan, Barrenkaleko Arostegi Etxean.

## Seminarioa aztergai

Udalak antolaturik, Bergarako Seminarioaren inguruan egin berri diren bi azterketa historikoak aurkeztuko dira datorren ostiralean, irailak 11, arratsaldeko 7 terdietan Kultur Etxean. Jose Llombart Palet Euskal Herriko Unibertsitateko historia doktoreak, Seminarioan egindako ikerlan fisiko-matematikoen gainean hitzaldia emango du eta Inés Pellón González Bilboko Merkatal Eskolako kimika irakasleak berriz, Seminarioko fisika gabinetea, laborategia eta botika izango ditu aztergai.



**PUB ROSA**


Tfnoa: 76 38 57  
Irala 1

**Gaspar**

Jatetxea, Txokolategia,  
Self Service-a

Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA





**Autokrosa** izaten da Kofraixetako ikuskizun nagusietako bat. Aurten ere ikusmin handia sortarazi zuen zalegoaren artean eta jende dexente hurbildu zen gidarien abileziak gertu gertutik ikusteko asmoz. Ohitura denez, txoke eta susto ugari... eta jendea primeran pasa. Guztira, 15 bat partaide izan ziren eta irabazleak **Txuspi** eskoriatzarra kotxeetan eta **Alberto de Lucas** uberarra *boogietan* izan genituen.

**Herri Krosa** ere ezin zen falta Osintxun. Astearte eguerdian hara hurbildu ziren ausartienak, **Irabango Itzulia** korritzera. Guztiek ahaleginak egin bazituzten probaren *palmaresa* osatzera pasatzeko, oporretatik indartsuen etorritakoek bakarrik lortu zuten pribilejio hori.

**Arkaitz Amenabar** (gaztetxoetan) eta **Xabier Zangitu** (nagusietan) arrotz egon daitezke.



# Osintxuko k...

**Karidadia, saldia..., rokana**

## Ohitura jarraituz

Eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere, asko izan dira jai gogoaz Osintxuraino hurbildu direnak, egitarau zabala antolatuta dute eta, Jai Batzordeak eta tabernariak.

Eta osintxuarrek, aurten ere, ohitura zaharrari eutsi diote: zekor hilketa-rena hain zuzen ere. Mekeleta baserrietik ekarri dute aurten kanalean 258 kilo pisatu zuen txahala. Hildako zekorraren haragiaz (70 kilo), salda eta Meza Nagusian eskeini zen *karidadea* (saldia prestatzeko erabili zen okelarekin egindako opila) prestatu ziren.

**Amets**




Zerbitzuak haundiagotuz  
**HERGO** karabanen  
banatzailea

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

**AMETS** Tailerrak

Berezano Auzoa • OÑATI



**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g · Tfnoa: 76 05 01

**MAHER**  
Biltegiak L.E.  
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,

Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

**GURIA**

Taberna

Bidekurutzeta 5,

Tfnoa: 76 20 34



# traixak

## na eta dantzia

### Bertsolariak

majo aritu ziren ostiral gauean. Lizaso, Egaña, Euskitze, Gorrotxategi, Mañukorta eta Muruak Iñaki Olaizolak jarri zizkien gai ei ahal zen guztia atera eta, b ide batez, jendearen artean barre ugari sortarazi zituzten.



## Udara honetan notizia izan dira...

▼ **Aitor Oregi** bergarar pelotari gazteak bere debuta egin zuen uda honetan profesionaletan. Re-tegi III. arekin bikotea osatuz, Aitorrek galdu egin zuen Gabilondo eta Alberdi III. aren aurka jokatu-tako 3. mailako partidua 18 eta 17ko emaitzarekin. Harrezkero, 2. mailako hainbat partidu ere jokatu ditu.

▼ **Normaltasuna** izan da nagusi uda honetan Bergaran Ertzantzaren informazioaren arabera. Izan dira bai hainbat lapurreta eta zenbait istripu ere, baina ezer apartekorik. Ertzantzaren esanetan, jendeak gehiago kolaboratuko beharko luke eu-rekin, salaketa gutxi izaten direla uste bait dute.

▼ **Pol-Polaren** Himalayarako espedizioak aurrera darrai. Uztailaren 20an Kike de Pablosek Izen Gabeko Dorrearen gailurra (6.275 m.) zapaltzea lortu zuen Hueskako Pepe Chavarriekin batera. Jon Lazkano osasun arazoak medio igoera utzi beharrean aurkitu zen. Orain berriz, lau espedizio-kideak Katmandutik Daulaghirira bidean dira.

▼ **Amilotx** taldeak Ipintzako Nagusiendako Futbol txapelketa irabazi zuen uztailaren 17an. Ustekabean, Mongatxurra taldeari nagusitu zitzan ion penalti jaurtiketetan, neurketaren bigarren zatian Mongatxurra zeukan 3 goleko errenta berdindu ondoren. J. Jabier Agirrek (Amilotx) jaso zuen txapelketako jokalaria onenari zegokion saria.

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



**TOKI-EDER**  
**Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**BATXILERGO INSTITUTUA**

**OHARRA:**

Matrikula epea irailak 11 an bukatuko da.

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



...**B**atu ohi ziren txanponak, Erruki Etxean zeuden zahar eta gaixoentzat lagungarri izaten ziren. "Club Cocherito", izen haundiko lagunartea zen Bilbon, batez ere, zezen giroan biltzen zireneko. Baziren beste lagunarte batzuk ere gisa honetakoak, nahiz Bilbon bertan, nahiz Nerbion ibaiak, ezker-eskubietara, banatzen dituen hiriburuetan.

Lagunarte honekin biltzen ziren jai onurakor bakoitza antolatzerakoan eta bertan erabakitzen zuten nortzuk izango ziren zezenlariak. Hobeto esanda, zein lagunartek jarriko zituen, kontutan izanik zer jendetza ekar dezakeen zona edo une inguru bakoitzak.


Zezenlariak eta beraien lagunartekoak, hamar taloisail, berrehun orrikoak, saldu behar zituzten zekorketan parte hartu nahi bazuten. Esan beharrik ez, dirua jasotzerik ez zutela izaten beraien lanagatik. Zartadaren bat edo beste, zezen koxkor haietakoek ezarrita espero zitzakeen. Indar larregi ez bazuten ere, trapukeriz beteta zeudela ezin ukatu.

Plazan, zekor bana eratuten eutzen zezenlari bakoitzeko. Inbutu itxurako tresna baten

*Geu gazte gintzala eta, geroztik ere, Bilboko zezen plazan hainbat zekorketa edo bezerrada onurakor eratuten zituzten urtean zehar...*

*Bildu dudan sortatxotik...*

## BILBOKO ERRUKI ETXEA



Antonio Urzelai

bitartez kontu ematen zuten ateratzera zihoazela zezena, aditzen emanaz, norentzako zen. Gauzak honela, atera zen plazara lehenengo txaltxoa, Sestaoko zezenlariarentzat aukeratua. Zezenak berriz, hondar gaintetik begiratzen zuen tendidoetara eta inguru guztieta; geldi, bere zeregina ulertu ezinik.

Une hartan, konturatzen da zezena, han urrun baten, zapi gorri bat mugitzan zala. Sestaoko zezenlariaren erronkada zen, alegia.

Zekortxoak, kinada bota zuten aurreruntz, eta sinistu arazi Sestaoko zezenlariari, abiadan irten zela berarengana zeuzkan indar denak martxan jarrita. Hau ikustean bildurto zen zezenlaria eta bira erdi emanaz hasi zen korrika, zoro baten antzera. Zeharo itxuturik, ez zen gelditu plaza bazterrean zegoen gordelanga buruaz jo eta erori arte. Txaltxoa berriz, geldi, lurrera begira, zer gertatzen zen jakin nahian.

Sestaoko zezenlariak, zartada hartu eta gero, konortea etorri zitzaionean bota zuten mardikazio beldurgarri bat eta, hitz hauekin bukatu zuen bere festa:

"¿Quién ha puesto esto aquí?"

**URRATS**  
  
**Kafetegia**  
 Ibargarai Tfnoa: 76 52 92  
**BERGARA**

**ORTZI**  
**Erretegia**

## BERGARA PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

(Psikologia Gabinetea)

- **Zerbitzuak:** Aspaldiko urteetan:
  - Kontsulta, diagnostikoa eta tratamendua (haur, gaztetxo eta helduentzat)
  - Eskola atzerapenatarako laguntzak, ikastetxeentzako zerbitzuak.

- **Tratamendua:** Psikoterapia (urduritasuna, depresioak, stress-a, harreman-arazoak, enuresia (gauetan txiza egitea), psikomotrizitatea, logopedia (hizkuntzazko zailtasunak, ahotsezkoa, afasia, artikulazio arazoak, toteltasuna,...)

Herri-Lagunak (Aranzadi ikastolako patiotik sarrera)  
 Tfnoa: 76 14 80. Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal







idatzi batean esaten de-  
nez, urte asko lehenago-  
tik bazegoen "kofradixa".  
Gizaldi horretan "kari-  
dadea" ere ematen zen,  
Errioxako herri askotan  
bezala.

Orain, abuztuaren az-  
keneko igandean ematen  
den bezala, lehenago  
martxoaren 3an, Martiri-  
en egunean, izaten zen.  
Osintxuko ohikunde hor-  
rrek ipui eta esaera zahar  
asko dauzka eta horieta-  
ko batzuek Azkue tar On  
Resurrekzion Mariak, Ba-  
randiaran tar On Joxemi-  
elek, eta Lekuona tar On  
Manuelek jasoak.

XVII. gizaldi horretan  
bertan osintxuarrak, jai  
eguneko meza entzun  
nahian eta Santamañatik  
urruti zeudela, auzoko  
ermita parroki izendatzea  
eskatu zuten; urteko jai  
guztietan Santamañatik  
apaiz bat meza ematera  
joatea lortu zuten, Oñati-  
ko konteak ordainduta.

XIX. erdialdera berriz  
eskatu zuten eta oraingo-  
an lortu ere bai gizaldi  
horren azken urteetan.

*Imanol Sorondo*

# Osintxuko Martiriak

Emeterio eta Zeledo-  
nio doneak IV. gizaldian  
hil zituzten Kalahorran.  
Hiri horretaraño heltzen

ziren Euskal Herriak bere  
mugetan erromatar garai  
haietan.

Deba izeneko ibai er-

tzean zegoen gure santu-  
aren ermita zaharra  
1.834ko uholde haundiak  
eraman zuten. 1.661ean



**Euskalduna  
Taberna**

**OSINTXU**

## INFERNUKUA

Bazkarizk ematen ditugu **Taberna**  
San Martinak arte.  
Enkarguak hartzen ditugu

Mahasterreka 23, Tfnua: 76 18 49

## MUGICA

**Burdinaki denda**


Bdekurutzeta 8

Tfnua: 76 28 67

**BERGARA**



Sevillako EXPOa ia amaituan dago. Urtean zehar zeresan ugari eman badu ere, orain politikoei, instituzioei eta enpresa pribatuei zenbakien saltsan sartuta dabilta, uste baino jende gutxiago dabilela, Sevillako merkatariek ez dutela uste zen dirutzarik lortu... Bertan laneari den Marisa Puertas (26 urte, 1.987.etik azafata) bergararrarengana jo du.



## Marisa Puertasekin EXPOn berriketan: "Sevilla EXPOa baino politagoa da oraindik"

**- Nola sortu zitzazun EXPOn lan egiteko aukera?**

- Ba iragarki bat azaldu zen egunkarietan, Euskadiko pabeloirako azafatak behar zirela eskatuz. Guztira, 3.000 pertsona inguru aurkeztu ginen eta bi egunetan entrebistatu gintuzten guztioi Bilboko Erakustazokan; test siko-teknikoak, hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta euskara) eta entrebista pertsonala gairitu nituen... eta berehala Sevilla-

ra joan nintzen, otsailaren amaieratik EXPOa zabaldu bitartean beharrezkoak ziren zenbait ikastaro egitera.

**- Handik gutxira aukera hobeago bat topatu zenuen...**

- Bai, pabiloietan egiten duzun lana nahiko aspergarria da, lorontzi bat moduan zaude hor zutik, jende aurrean irripartsu eta ia ezer ere egin gabe. Lagun batzuekin batera beste lanen baten bila hasi

eta IBM entpresarekin lan egiteko aukera sortu zitzaidan. Soldata eta lana bera ere interesgarriagoak zirenez, idazkari lanetan hasi nintzen eta bertan jarraitzen dut, kartak itzuli, akreditazioak eraman, bezeroei gauzak erakutsi... eta beste hainbat lan burutz.

**- Barruan dagoen baten ikuspegitik nola ikusten da EXPOa?**

- Niri behintzat ge-

hiago gustatzen zait inguruko pasealeku edota lorategietatik ikustea barrutik baino. Sekulako jende pila egoten da egunero eta ez da patxadaz ikus dezakezun gauza bat, ikaragarriko pazientzia behar duzu zenbait pabiloietara sartzeko egoten diren ilaretan, eguzkitan itxaroteko. Baina tira... EXPOn gauza zoragarriak daude ikusteko, nik benetan Sevillara etortzea gomendatzen dut.

**- Eta zure ustez zeintzuk dira sin falta ikusi behar diren pabeloak?**

- Ba jende guztiak komentatzen dituenak; Kanadakoa, Nabigazioari buruzkoa, Etorkezunare-

**BERGARA**  
**Karrozeria**  
Txapa - Pintura  
Tfnoa: 76 12 31      Zubieta 46  
Bergara

**ETXAGI**  
**Jatetxea**  
Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak  
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

  
**BERGARA**      Tfnoa: 76 25 99



na, Espainiakoa, Frantziakoa... ez dakit, zaila egiten zait. Hala ere, Sevilla hiria bera EXPOa baino askoz politagoa da eta bertara etortzen direnei hiria ere ondo ikus dezatela eskatuko nieke.

**- Euskadiko pabiloiak nolako barrera izan du?**

- Jendeari ez zaio gehiegi gustatu baina esan beharra dago autonomikoen artean onenetarikoa dela. Bertan eskeintzen den filma guztiz orijinala da, 360ºko pantailan Euskal Herriko hainbat aspektu azaltzen zaizkigu familia baten ikuspegitik. Autonomikoen artean Euskadikoa da ikus daitekeen bakarra, gainontzekoetan ez baita ezer berririk aurkitzen. Euskadiko jatetxea ere famatuenetarikoa da...

**- Eta zer entzuten da EXPOko zifren inguruan?**

- Komunikabideetan galera haundiak izango direla esan bada ere, EXPOko agintariek jendea orainarte bezala etortzen jarraitzen badu galerarik ez dela izango esaten dute. Hasieran jubilatua etortzen baziren batipat, udan gazte jendea izan da nagusi. Atzerritarrak botatzen dira faltan, uste baino gutxiago etorri dira. Beharbada kanpora begira ez da hainbeste

promozionatu.

**- Zuretzat esperientzia oso positiboa izan dela esan daiteke...**

- Bai, gustora nago hemen lanean eta ez naiz batere damutzen hona etortzeaz. Bartzelonako Olinpiadetara joateko aukera izan nuen baina Sevilla Bartzelona baino askoz erakargarriagoa egiten zait. Gainera hemen 6 hilabete eta han hilabete bateko lana nuen. Egia da Olinpiaden inagurazioa telebistatik ikustean, bertan egoteko desioa ere izan nuela bai...

**- Hemen pertsonaia famatuak ezagutzeko aukera ere izan duzu...**

- Bai ia mundu osoko errege eta agintariak pasa dira hemendik eta gehienak gertu gertutik ikusteko aukera izan dut. Hala ere, politiko edota printzesak baino ilusio haundiago egin zidan Michael Douglas aktorea ezagutzeko.

**- EXPOa amaitzean, ze perspektiba daude Sevillan?**

- Sevillari oso ondo etorri zaio EXPOa antolatzeak, hiriak itxuraldaketa osoa izan duelako

eta, bide batez, 20.000 lanpostu inguru sortu direlako. Hori amaitutakoan, ez dakit, une larriak etorriko direla espero daiteke, 93a nahiko gogorra izango da, zerbitzuetan izan ezik, ez baitago lanik Sevillan.

**- Eta zuk zeuk ze asmo daukazu?**

- Bertan jarraitzeko proposatu didate baina Bergarara itzuliko naiz. Hala ere, gustatuko litzaidake 98an Lisboan egingo den Expoan egotea, edota Japonen 2.002an... Nork daki?



Gustora asko omen dabil Marisa Andaluzia aldean. EXPOan lanordua sartu ondoren Sevillako txoko ederretatik paseatzea du gustoko. Hala ere Euskal Herria, eta Bergarako lagun eta familiarakoak gogoan ditu eta itzultzeko irrikatzen dago.

**IRUBIDE**

**Taberna**

Bazkariak, gosariak, afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

**KIZKUR**



**Ileapaindegia  
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

**SURPE**

**Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



## Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



**ETXE  
AUNDI**

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

# FS

oto sistema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Garraioen huelga dela eta neurri berezirik hartu al duzu?




**Itziar Aranguren**  
32 urte, Eroskiko langilea

Ahal dugun neurrian hartu dugu, jendea bestetan baino gehiago erosten hasi dela igarri da eta.



**Ramon Eguren**  
73 urte, jubilatua

Ez, ez, ez... Hori emakumeei galdetu behar.



**Iñaki Akizu**  
46 urte, komertziala

Oraingoz ez, ez dut uste eragin haundirik izango duenik eta.



**Maite Valle**  
34 urte, administraria

Ez, orain arte ez. Gainera ez dut uste oso gogorra izango denik, administrazioak neurriak hartuko ditu eta.

# ARANZADI IKASTOLA

## OHARRA

### 1.992/93 ikasturtearen hasera

- ✓ 3 urteko ikasleei irailak 7an ospatuko den batzarrean jakin araziko zaie
- ✓ Eskolaurreko (4-5 urte) eta O.H.O.ko 1.-5. mailak irailak 7an hasiko dira goizez eta 21ean goizez eta arratsaldez
- ✓ O.H.O.ko 6.-8. mailak irailak 14ean goiz eta arratsaldez





## *Sinestezina benetan*

Badakit agertu behar dudan gaia ez dela batere erraza. Gerrate zibila hurrun dagoen beste nazio batetik ulertzea denori zaila egiten zaigu, bakoitzak bere arazoak ditu eta.


Azken hilabeteotan komunikabideek egunero josi gaituzte Yugoslabia zaharrean gertatzen ari diren arazoei buruzko informazioaz. Bosnia-Herzegovina inguraturik dago, kroatak alde batera egin dira eta Serbiak eta Montenegrok aurka egin diote, hori Bosnia bertan dauden servioak kontatu gabe.

Hona hemen gerrate zibila, ezadostasuna, baina ez bi talde berdinen ezadostasuna, talde txiki eta haundi baten artekoa baizik, eta beti bezala haundiak txikia zapaltzen du.

Politikari guztiak, barne eta beste mundu guztikoak ere, elkarriketa bukaezinean ari dira, interbentzioa, laguntza, errespetatzen ez diren bake-denborak eta abar luzea. Bitartean eguneroko bonbardaketak, hilketak, gatazkak, hondamendia, gosea, tentsioa eta denbora luzean aldizkarian irakurri dudan notziarik sinestezinena, gizonen eskubideak guztiz zapaltzen dituzten kontzentrazio-kanpoak.

Nola daiteke horrelako zerbait gaur egun berriro ere gertatzea? Gizon-emakumeek historian zehar erru ugari izan dute, aipagarrienetakoa Alemania nazian gertatu zen holokaustoa, ez dut hori gertatzen ari denik esan nahi, baina nola daiteke gertatutako hori errepikatzea nahiz eta neurri askoz txikiagoan izan?

**Nora Askargorta**



## *Maastricht*

Frantzian ospatuko den erreferenduma Maastrichteko Akordioa onartzeko demokraziaren gaurko arazo sakon bat plazaratzen ari da Pirinio eta Gibraltarr bitartean. Gobernuko presidentearen eritziz hemen ez da komenigarria horrelako kontsulta bat egitea, zentzurik ez duela. Aldiz, galden lurretan mitina ematea ontzat ematen du. FGk aspaldi hontan errealitatearen zentzua galdu ote du?. Nik uste dut baietz. Beharbada, egokia litzateke Moncloako jauregia Hispasaten kokatzea, estadistaren perspektiba dela eta.

Dena den, dinamarkarek argi erakutsi ziguten, kalean Maastrichteko etorkizuna eta zeregina ez dela hain lortua, eta gehiengoaren interesak agian ez direla defendatzen euroburokraten ikuspegi zoragarriarekin. Maastrichtek (arrakastatsua izan dadin) jendearen atsegina eskatzen du, baina, FG eta beste hainbat politikoren arabera, erabakiak gutxiengo batek onartuz gero demokraziaren formalismoarekin dotore betetzen da.

Despotismo ilustratua lehenengo ta behin. Gehiengoaren eritzia jasotzeak arrisku asko suposatzen du. Demokraziaren beldurti agertzen zaizkigu gure etorkizunaren lemazainak. Beraz, bitartean, jendearengandik urrun nahi dituzten konponketa guztiak onartu eta sinatzeko gai izango dira, karguen arabera, baina sakonean demokraziaren porrota lantzen ari dira. Demokrazia ausartu, hortan datza sistimaren etorkizuna, ez gutxiengo baten jokaera despotikoan.

**Iñigo Urrutia**

**LARREA**

**TABERNA**

**Kale Barren 17  
ANTZUOLA**

**AGIRREBEÑA**

**Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria**

**Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29**

**ERREKI**

*Jatetxea*

**Bixigua, legatz kokotea, idi txuletak,  
rapea/sapua eta kazuelatxo eta pintxoak  
dira gure berezitasunak**

**Lehengo jabeak  
berriro zuekin!!**



## Beheko Taberna

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## LARRAÑAGA

eta ZUBIA

### Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

## JUBILATUEN TABERNA

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

## ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko botelakotia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

## Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65




### ❑ O sole mio...

Uztaileko azken alean aipatzen genuen bezala, Bergarako 29 margolarik beren lanak ikusgai izan dituzte uda honetan zehar eta irailaren 10era arte **Ortonovon** (Italia).

Argazkian ikusten denez, bertara margolari gehienak joan ziren beren lanak aurkeztu eta, bide batez, turismo pixkat egitera Italia aldean. Besteak beste, Venecia, Siena eta Florenciako hiriak bisitatu zituzten eta bai gustora bueltatu ere.

Horrez gain, hango margolariekin egin den hartu-emanaren oroigarri modura, italiariek eskumako argazkian agertzen den iturria eraiki zuten eta **Victoriano Gallastegi** alkatea izan zen berau inaguratu zuena. Orain, urtaril aldera, italiariek izango ditugu bisitari. Mamma mia!!



## GOIERRI

### Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA





□ **Arrama behera**

Olaso Dorrean dagoen magnolio zoragarriari bere adar sendoena apurtu zitzaion pasa den abuztuaren 23an. Zorionez, arratsaldeko 4ak inguru ziren adarra erori zenean eta ez zen inolako istripurik izan. Telesforo Monzonen aitona ezkondu zen egun berean landatu zen magnolioa eta 160 urte inguru ditu. Ofizialki, monumentu naturala kontsideratua dago eta astelehenean bertan Diputazioko teknikariak etorriko dira galeraren arrazoia aztertzeko. Espero dezagun magnolioak oraindik ere urte askotan jarraitzea bertan...

□ **Dantzan**

Amaia Agirre eta Eduardo Muruamendiarazek igandean Zarautzeko Euskal Jaiaren barruan jokaturako dantza txapelketa irabazi zuten, *Arin-arin* eta *Fandangoan* parte hartu zuten beste 9 bikoteei nagusituz. Horrez gain, Eduardok goizean izandako auresku lehiaketan ere txapelkun izan genuen 10 partaideren artean. Zorionak eta eutsi goiari!!



**Zertan dibardute ba?**

JOSE ETA NEREA ARRIETA



Aritzeta abesbatzeko bi kide hauek (aita eta alaba) Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko Zuzendaritza Batzordekoak ekainetik. J.M. Aierdiren zuzendaritzapean, biek musika korala indartzeari ekingo diote.

MANU DIAZ



Zuzenbide ikasketak burutu dituen 27 urteko bergarar honek Bergara Kirol Elkarteak osatu berri duen 2. errejonaleko futbol taldea zuzenduko du. Bergararrek hilaren 13an egingo dute debuta.

**Taberna Kafetegia**  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
 Kafea da gure berezitasuna  
 Zubieta 26, BERGARA

**P. MANSO**  
 Optika  
**OPTIKOA, OPTOMETRISTA**

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86



## Umore giroan

### Kliente bat gitxiago

Kaporala ta beste bere lagun bat oitxuta zegoen "Mototxenian" edaten pagau barik. Beti, baiña, zeuken aitzekiren bat epetan edateko. Aspertuta, egun baten, Mototxek esan zetsen:

- Kanpora emendik! Edan eta sekula pagau ez! olan dok ala?

Urtetzerakuan, "Kaporala" k:

- I, Mototx, euretzat txarrago: bi kliente gitxiago daukaz.

\* \* \*

### Nondik jausi biok ardaia emoteko

"Kortazo" n obra batetik, aifn zuzen be laugarren pisotik, jausi zan egun baten biargifn bat.

Eta ugazabak, goitxik deitxu zeban, esanaz:

- Emon orri ura!

An inguruan zeguan gure "Kaporala". Esan ei zeban:

- Zelan dok au? Zenbatgarren pisotik jausi biok ardaia emoteko?

\* \* \*

### Enpresia irabazi

Beifn, Eibarko "Asteleena" pelota lekuan, "finaleko" partidu famatu bat jokatu zan jende izugarriakin. Partidua amaitxu eta urtetzarakuan, Isasi kaleetik bera zioan batek galdetu etsan:

- "Punteret", nok irabazi jok?

- Enpresia, izan zan Punteret-en erantzuna.

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### XVIII. mendeko pintura Bergaran

Mende honetako pinturan aurrekoaren egoera bera aurkitzen da. Lokal mailako obrak urriak izateaz gain, erretauletan ezartzekoak dira eta ez interes haundikoak gainera: Jesusen Lagundiko "Ikustaldia", "Arimak" eta "S. Jose" ren koadroak, Sta. Marian biak, edota S. Jose eta S. Ignaziok Elosun duten errepresentazioak, adibide adierazgarriak ditugu.

Dena den, obrak kanpotik ekartzen dira oraindik, eta zentzu honetan badira kalitate oneko sei pintura, tradizioz Francisco Bayeuri leporatu izan zaizkionak: Sta. Marina elizak konposizioz antzerakoak diren gai bereko bi mihise gordetzen ditu "S. Sebastian eta S. Roke"; marrazki bikainaz eta arreta haundiz landutako obrak dira egilearen joe-

ra akademizista erakusten dutenak. S. Pedro elizan tamainu txikiko lau ohial aurkitzen dira honako pertsonaiak errepresentatuz, S. Raimundo eta Peñafort, Ramón Lull beatoa (sarkristian biak), S. Francisco de Borja eta S. Ramón Nonato (S. Martín de Agirreren gaurko erretaulan integratuak); Sta. Marinako obrak ez bezala, hauek zirrimarrak dirudite, eta bertan pintzelada zaindua, nahiko askatua, eta maisu honek egiten dakizkien armonia kromatiko leunak antzeman daitezke.

Sta. Marinaran gordetzen den Apostolutza aparta jadanik neoklasizismoan sartzen da bete-betean.

M. J. Aranburu eta J. Gil Masa

**CAMACHO**  
DROGERIA  
USAINDEGIA

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35  
BERGARA



Gizon Emakume  
Barrenkale 35 Irala 2  
BERGARA

 **IZADI**  
Santiveri PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua  
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**LXLIKUN**

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

**FANCY**

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24



# BONOFOTOA



M. A. Elkoroberazibar



## Felix Muruamendiaraz

Felix Muruamendiarazek irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria: 10.000 pzta. Berak jarritako erantzuna, argazkian agertzen zen baserriaren izena San Kristobalgo Amuskibar zela, zuzena zelako. ZORIONAK, Felix!! Besteok, segi jokutzen ea suertea daukazuen.

**Elorregiko zubitik Osintxuko zubi honetara, Deba ibaia jarraituz, zenbat zubi daude?** ✂

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Aste honetako  
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara





# ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



# LARRAÑAGA

## Autogidarien Eskola

Artekale 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA

### Hauetakoren bat aukeratzen baduzu

#### Txahal haragia

Kilo bat tajada

1.290 ptz/k.

Kilo bat gisatzekoa

670 ptz/k.

#### Txekor haragia

Kilo t'erdi tajada

990 ptz/k.

Kilo t'erdi gisatzekoa

400 ptz/k.

**2  
litro  
olio  
OPARI!!**

Kilo bat txuleta

790 ptz/k.

Kilo bat solomo

1.090ptz/k.

**Txerrikia**

Erdika

890 ptz/k.

Iztarra

790 ptz/k.

Bildots-txuletak 990 ptz/k.

Lepoak 400 ptz/k.

Paletilak 690 ptz/k.

**Esneko bildotsa**

**DON  
PASCUAL**

## Harategi berria!!

Barrenkale 24  
BERGARA





Gasteizko Aurrerak, Aloñamendik, Aretxabaletak eta Bergara K.E.k jokatuko dute astebukaera honetan Bergara Hiria Futbol Txapelketa. Iaz Preferentera igo ondoren, denboraldia gogo haundiz ekiteko asmoa azaldu dute zuzendari, entrenatzaile eta jokalariek. Zaletuek, bestalde, aukera ederra izango dute itxuraz aldatu duen talde nagusiaren jokia gertutik jarraitzeko.

## Bergara Hiria Futbol Txapelketa: talde nagusiaren aurkezpena

Bergara K.E.k eta Gasteizko Aurrerak zabalduko dute txapelketa arratsaldeko 6.30etan Agorrosinen. Larunbatean, Aloñamendi eta Aretxabaleta lehiatuko dira ordu eta toki berean eta igandean, azkenik, aurreko partiduetan garaile irtezen diren biek finala jokatuko dute.

Etsai gogorra izango dute aurrean bergarrek. Izan ere, iaz hirugarren mailara igotzeko zorian izan ziren gasteiztarrek. Irabazi ezker atxabaltarren edota oñatiarren aurka neurtu beharko dira. Elkarteko zuzendariak, Aloñamendiren aurkako finalarekin amets egiten dute... Kontuakontu, Izagirre entrenatzaileak bere mutilak indartsu dauden ala ez ikusteko aukera izango du liga hasteko hamar egun geratzen direnean: hilaren 13an eta etxetik kanpo hasiko du liga, Lazkaoren aurka.

### 2. mailako Regionala

Jesus Izagirre 24 joka-

larirekin lanean ari da. Iazko taldearekin konparatuz, Arregi Aloñamendin jokatzeraz joan da, Carabiasek ere alde egin du eta Txomin Bengoa eta Pelayok futbola utzi dute. Bestalde, Atano, Fran, Clemente, Zelaia, Ibon Larrañaga eta Estala fitxatu dira. Dena den, liga hasi aurretik talde nagusian 18 geratuko dira eta geratzen direnek, aurten eratu den 2. mailako Regionalean jokatuko dute, jubenil mailatik igo direnekin eta herriko beste batzurekin batera. Talde honen entrenatzailea Manu Diaz izango da Jabi Orbea laguntzaile izango duelarik.

### Zazpi talde guztira

Bukatzeko esan dezagun Bergara K.E.ko futbol saila zazpi taldek osatuko dutela: ehun jokalaritik gora. Aipatutako Izagirre eta Manu Diazaz gain, Beitia, Igor Unzurrunzaga, Enrique Nieto, Julian Ugalde eta Fernando Oregik eramango dute beste taldeen ardura.



### Fitxaje berriak

- ✓ Jesus Izagirre: 55 urteko gasteiztarra taldeko entrenatzaile berria dugu. Iaz Mondra entrenatu zuen.
- ✓ Francisco Fernandez: 26 urte, aurrelaria. Atano atezainarekin batera, Gasteizko Aurreratik ekarri dute.
- ✓ Aitor Estala: 29 urte, aurrelaria. Iaz Beasain taldeko goleatzaile onenetarikoa izan zen.
- ✓ Jesus Clemente: 26 urte, erdilaria. Iaz Urolan ibilia.
- ✓ Luis Mari Uriarte "Atano": 24 urte, atezaina.
- ✓ Gorka Zelaia: 22 urte, Aloñamenditik dator, erdilaria da eta jubenil mailako Realean ibilia.
- ✓ Ibon Larrañaga: 17 urte, aurrelaria. Iaz Bilboko Athleticeko jubeniletan jokatu zuen.





*Eskola Nazionaleko 1.934.eko ikasleak*

**B**ederatzi-hamar urteko mutikoz osatutako kuadrila hau gerra aurtxoan, 1.934ean, Don Elias Azpiazu maisuarekin Eskola Nazionalean ibili zena duzue. Garai hartan ume txikiagoak auzoetako eskoletan ibiltzen ziren eta 9 urte ingururekin etortzen ziren orain epaitegia dagoen tokian zegoen eskolara.

Hara nortzuk diren ezkerretik eskumara:

**Lehenengo ilaran:** Angel Lopez, Mariano Losada, Yosu Azkarate, Jesus Mari Peña, Felix Narbaiza, Jesus Durana, Fernando Etxeberria, Angel Herran, Eulogio Diez, Jose Maria Larrea eta Juanito Lopez.

**Bigarren ilaran:** Julio Bixente Urrea, Juanito Imaz, Antonio Gerra, Gaspar Elkoro, Ramon Azpeitia, Andres Alzelai, Fermin Mujika, Jose Luis Alarzia, Leon Ena, Luis Etxarri, Felix Santamaría eta Mariano Martinez.

**Hirugarren ilaran:** Andres Azpiazu, Luis Artola, Manuel Villeras, Baldomero Fernandez de Retana, Santos Arenaza, Juanito Uriarte, Jose Mari Uriarte, Juan Mari Azpiazu, ezezaguna, Domingo Frias, Evaristo Albeniz eta Bixente Arenaza.

**Laugarren ilaran:** Elias Azpiazu irakaslea, Jabier Gallastegi, Jose Maria Artola, Luis Corral, Luis Calleja, Marzelino Agirre, Balentin Umerez, Luis Etxaniz, Francisco Arrondo, Alejandro Azkarate eta Juanito Arriaran.

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Mariano Losada*

**GANBARA** **T**  
**Berezitasunak:** **B**  
**Pintxoak eta** **E**  
**kafea kremarekin** **R**  
**Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75** **N**  
**A**

**ABDON JUARISTIK**  
**pintura klaseak**  
**76 47 98**  
**(arratsaldez)**

**DENA 100**  
**pzta.tan**  
**Ireki berria**  
**SIMON ARRIETA 3an**



**ETXEBIZITZA**

Pisua salgai Bidekuru-tzetan. (5.000.000)  
☎ 76 09 36.

Santa Marina inguruko garaje bat Zapelaitz aldeko batekin trukatu nuke. ☎ 76 58 61.

Garajea alokatuko nuke Torrekuan. ☎ 76 18 82 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Apartamentua alokatuko genuke (garaje eta guzti) Jakan. ☎ 76 43 98.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espaloian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

**SALDU-EROSI**

1.992-93 ikasturterako, egunero Donostiara joan-etorria egiteko, autobusa bete nahi dugu. Interesatuta bazaude deitu 77 00 65era.

Collie arrazako txakur-kumak salgai  
☎ 76 31 35 / 15 04 41

Mendiko bizikletaren XT.92 freno beltzak salgai. ☎ 76 52 31 (gauzez).

CX 2.600 ATARI bideo-jokuak erdi-prezioan salgai. 10.000 pezeta, ia berria. ☎ 76 17 18

Gastelzera egunero joateko kotxe bila gabiltza ☎ 76 31 55 (eguerditan, Aitor)

Bigarren eskuko futbolin eta bilarrak salgai.  
☎ 76 12 00 / 45 21 19.

3 atedun Opel Corsa 1.300 GTa salgai (SS-X).  
☎ 76 05 92 (gauzez).

Matrimonio logela bateko altzariak salgai  
☎ 76 44 27 (gauzez).

Ingeles kurtso bat kasetetan erosiko nuke.  
☎ 76 54 26.

XR 2 i kotxea salgai. 2 urte, berri-berria. 55.000 Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

Elektragailuak (garbigailua, hozgailua...) erosiko nituzke ☎ 76 17 85.

**LANA**

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 45 53.

Taberna alokatuko nuke  
☎ 76 53 73.

Arratsaldetan galxoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke.  
☎ 76 46 90.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.  
☎ 76 36 06 (Marisol).

Mutil batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. marraztuko lituzke ☎ 76 25 59.

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska bat behar da etxeko lanak egiteko.  
☎ 76 31 58.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

**Hildakoak**

*Margarita Urzelai Igarza*, uztailak 17, 76 urte. *Manuela Garralda Goldarazena*, uzt. 19, 87 urte. *Juan Laskurain Agirre*, uzt. 20, 78 urte. *Sabina Muñagorri*, uzt. 22, *Maria Zubizarreta Larrañaga*, uzt. 31, 77 urte. *Jose Larrañaga Susperregi*, uzt. 31, 66 urte. *Juana Alzelai Irazola*, abuzt.8, 80 urte. *Pedro Txintxurreta Lete*, abuzt. 25, 61 urte. *Lucia Landa Segurola*, abuzt. 31, 82 urte. *Juan Luis Alcaraz San Roman*, irail. 2, 28 urte. *Ana Maria Mulas Ayonilla*, irail. 20, 26 urte

**Jaiotakoak**

*Miriam Moreno Haro* (uztailak 4) *Gonzalo Ena Gallastegi* (uztailak 13) *J. Ander Rodríguez Míguez* (uzt. 12) *Nekane Alegria Zafra* (uztailak 15) *Xenia Estevez Cachafeiro* (uzt. 18) *Julen Arana Fernández* (uztailak 24) *Alexander Arzelus Mujika* (uzt. 22) *Jon Urbietta Barrutia* (uztailak 23) *Maite Txintxurreta Agirregabiria* (abuztuak 4) *Lara Bernier López* (abuztuak 4) *Joane Sánchez Salas* (abuztuak 22) *Jonbattan Vaz Catalán* (abuztuak 27) *Odei Rodríguez Baladron* (abuz.29)

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

**ONENA**  
**TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA




# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**FAGOR**

SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO GARANTIA**

## LA PUERTA AL INGLES

BURDIÑATE, 5  
Tfnoa: 76 30 01  
20.570 BERGARA  
Ordutegia:  
10etatik 1etara eta  
4retatik 8etara

✓ Irakasle ingelesak.

✓ Maila eta adin guztientzako.

✓ Partikularrak ere ematen dira etxe, lantegi eta eskoletan.

Zeuk erabaki dezakezu.

✓ Cambridge University, Trinity College eta Hizkuntz Eskola Ofizialeko azterketak egiteko prestatzen zaitugu.

✓ Alemana ere ematen dugu.

THE DOOR TO

LA PUERTA AL

